Mondragon Unibertsitatea
Biblioteka

# Konpetentzia Digitalak

## Graduko ikasleentzako formakuntza materialak

2. Komunikazioa eta lankidetza

2.2. Teknologia digitalen bidez partekatzea :

## 2.2.2. Blog-en bidez partekatzea: WordPress

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

Bestelakorik adierazi ezean, itemaren baimena horrela deskribatzen da: Aitortu-EzKomertziala 3.0 Espainia, 2020

Komunikazioa eta lankidetza.
Teknologia digitalen bidez partekatzea

# BLOG-EN BIDEZ PARTEKATU: WORDPRESS

CRUE REBIUN
Red de Bibliotecas Universitarias

# HELBURUAK

Jarduera hau egin ondoren, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



**Blog bat sortzeko eta mantentzeko tresnak ezagutzea**

**Blog bat Wordpress sortu eta mantentzea**

# AURKIBIDEA


ZER DA BLOG BAT?
- Ezaugarriak

WORDPRESS
- Funtzionalitateak
- Diseinua

GUNEA SORTU
- Izena
- Domeinua
- Plana
- Kontua

PERTSONALIZATU
- Ikonoa
- Lema
- Perfilaren argazkia
- Kontaktu orria

SARRERA BAT ARGITARATU
- Kategoriak eta etiketak
- Irudi nabarmena
- Elkarbanatu
- Slug eta laburpena
- Edukia gehitu
- Aurrebista

# ZER DA BLOG BAT?

Blog edo bitakora maiz eguneratzen den web orri bat da, kronologikoki erakutsitako sarrera edo postez osatua, berrienetik zaharrenera, eguneroko bat edo oharren koaderno bat balitz bezala.




Ez da sarreren artean denbora gehiegi pasatzen utzi behar. Aldez aurretik sor daitezke, eta erabakitzen dugunean argitaratu.

# BLOGEN EZAUGARRIAK

- Blogeko sarrera guztiak web-orrian gordetzen dira, irakurleak nahi duenean kontsultatu dezakeen fitxategi bat osatuz.
- Sarrerek hainbat motatako dokumentuak nahas ditzakete: testua, irudia, bideoa, audioa, etab.
- Etiketak eta kategoriak sortzeko aukera eskaintzen dute, postak gaika antolatzeko.
- Aktiboki parte har daiteke, eztabaida eta ideiak azaltzea sustatuz.
  Irakurleek iruzkinak utz ditzakete sarrera bakoitzean, guk idatzitakoari buruz.
- Edukiak kategorien arabera antola daitezke.

Iruzkinen bidez, lan- edo ikerketa-gai berberetan interesa duten pertsonen harreman-sare bat sor dezakegu.

# WORDPRESS




**Hasi hemen Wordpress erabiltzen**

1. Egin klik *Blogs*-en
2. Edo *Empieza ahora*-n
3. Zure blogaren datuak sartu

# WORDPRESSEN FUNTZIONALITATEAK

| | |
|---|---|
| ZABALKUNTZA | Zure edukia sare sozialen bidez zabaldu dezakezu Wordpressen funtzio integratuei esker. |
| ALOJAMENDUA | Zure blogaren diseinua modu seguruan alojatu dezakezu hainbat datu-zentrotako zerbitzarietan. |
| DISEINUA | Diseinu moderno eta pertsonalizatu bat izan dezakezu, zuk aukeratutako funtzionalitateekin. |
| ESTATISTIKAK | Izan ezazu zure blogaren jardueraren berri, jakin ezazu nola aurkitu zaituzten eta zein bisita eta sarrera gustatu zaizkien gehien zure irakurleei. |
| MULTIDISPOSITIBOA | Aplikazio mugikorretarako eta ordenagailuetarako gai moldagarriak, edozein gailutatik blogaz gozatzeko. |

# DISEINUA







Aurkitu zure bloga hobekien definitzen duen estiloa kalitate handiko ehunka diseinuren artean. Bilatu diseinu guztiak

# SORTU ZURE BLOGA 4 URRATSETAN




1. IZENBURUA
2. DOMEINUA
3. PLANA
4. KONTUA

# IZENBURUA

1
- Blogaren izenburua

2
- Gaia

3
- Helburua



# DOMEINUA

2




Pertsonalizatu zure domeinu-izena

| | |
|---|---|
| **DOMEINU BERRI BAT ERREGISTRATU** | Erregistratu domeinu bat zure gunerako, eta errazagoa izango da gogoratzea eta partekatzea. |
| **ZURE DOMEINU PROPIOA ERABILI** | Domeinu-izen bat daukazunean, zuzendu ezazu WordPress.com-eko zure webgunera urrats txiki eta erraz batzuetan. |
| **POSTA ELEKTRONIKOA KONEKTATU** | Erabili zure helbide elektronikoaren domeinu pertsonalizatua, eta aktibatu posta elektronikoaren birbidalketa, G Suite edo beste edozein posta elektronikoko zerbitzurekin. |

# GUNEAREN HELBIDEA

Gako-hitzak sartzean, Wordpressek domeinu-izen posibleak, doakoak edo ordainpekoak, eskainiko dizkizu.




Zure domeinua badaukazu, Wordpressera transferitu dezakezu eta bertatik kudeatu.

# PLANA

3




**Aukeratu doakoa, plan perfektua da ikasleentzat.**

**Doako plan bat hauta dezakezu, ikasleentzat aproposa, edo ordainpekoa, funtzionalitate handiagoekin.**

# ZURE KONTUA SORTU

4

- Kontua zure **helbide elektronikoa** erabiliz sor dezakezu
- Edo zure **Google profila** konektatuz.

**Lehenengo aukera hautatuz gero, mezu bat bidaliko dizute zure postara, helbide elektronikoa berresteko eta zure kontua aktibatzeko.**



# ZURE KONTUA HELBIDE ELEKTRONIKOAN BERRETSI



Zure kontua berresten duzunean, kontsultatu zure sarrera-ontzia: WordPress.com-eko ongietorri kita jasoko duzu.

Sartu zure kontuan zure erabiltzaile-izenarekin edo zure helbide elektronikoarekin edozein unetan.

# PERTSONALIZATU: ZURE BLOGA EDITATZEN JARRAITU




KONFIGURAZIOA

5 IKONOA

6 LEMA

7 PROFIL ARGAZKIA

8 KONTAKTU ORRIA

# IKONOA ETA LEMA

5




**Aldatu hemen lekuaren izena**

**Gunearen ikonoa:** ***Cambiar*** **botoia sakatu besteek nabigatzailean zure gunea identifikatu ahal izateko irudi edo ikono bat igotzeko.**

**Lema sortu: zure lekuari buruzko deskribapen laburra** ***Descripción corta*** **eremuan.**

# PROFIL ARGAZKIA



Pertsonalizatu zure sarrerak eta iruzkinak **profil-irudi** batekin. Egin klik irudian beste bat igotzeko.




7

# HARREMANETARAKO ORRIA

8

**Harremanetarako orriarekin**, besteak errazago komunika daitezke zurekin. Orrialde hau pertsonalizatu, erabiltzaileak zurekin noiz eta nola komunikatu daitezkeen adieraziz.




Pertsonalizatu zure **kontaktu-orria**
Animatu bisitariak zurekin harremanetan jartzera.

# SARRERA BAT ARGITARATU

Lehenengo sarrerarekin zure bloga martxan jartzeko unea da. Testu honen ordez, aurkezpen labur bat egin. Galdera hauetan oinarritu zaitezke:

- Nor zara eta non zaude?
- Zergatik sortu duzu webgune hau?
- Zer aurki dezakete bisitariek bertan?



# KATEGORIAK ETA ETIKETAK

Kategoriek eta etiketek zure edukia antolatzen laguntzeaz gain, zure guneko bisitari-kopurua ere handitzen dute.

Egin klik ***Categorías y etiquetas*-en** atala zabaltzeko eta aukeratu zure sarrera deskribatzen duten etiketa bat edo bi.



# IRUDI NABARMENDUA




Aukeratu irudi bat edo ordenagailutik igo bat







Irudi nabarmenduekin, orriek pertsonalitatea irabazten dute



# ELKARBANATU

**Aukeratu zure sarrerak partekatzeko erabiliko dituzun sare sozialak, eta automatikoki egingo du.**




**PARTEKATZEKO BOTOIAK: irakurleei zure sarrerak erraz partekatzeko aukera emango diezu, gunean partekatzeko botoiak gehituz.**



# SLUG ETA LABURPENA

- **Slug** webgune baten barruan sarrera espezifiko bat identifikatzen duen web helbidearen zatia da. Askotan, sarreraren izenburuan oinarritzen da.
- ***Extractos*** laburpen laburrak dira, sarrerei gehitzeko modukoak. Diseinu batzuek laburpenak eta sarreren izenburuak erakusten dituzte hasierako orrian eta zure guneko artxibo-orrietan.



# EDUKIA GEHITU




***Añadir***-etik, hainbat eduki-mota sar ditzakezu:

- Zure irudiak, dokumentuak, bideoak edo audioak.
- Googleren argazkiak, zure Google kontura konektatzen bazara.
- Doako argazki-liburutegiak: Pexelsek emandako argazkiak, bilatzaile baten bidez.
- Harremanetarako formularioak: hemen aldaketarik egiten ez baduzu, iruzkinak sarreraren egileari bidaliko zaizkio.
- Ordainketa-botoi bat gehitu.



# AURREBISTA




Klikatu ***Vista Previa*** blogeko sarrera nola geratuko litzatekeen ikusteko.

**Wordpressek gailu anitzeko txantiloiak** eskaintzen ditu, eta horiei esker bloga beti perfektua izango da edozein gailutan. Eguneratu zure webgunea iOs eta Androiderako doako aplikazioekin.

**Bilaketa soziala**: ikusi zure webgunearen edukiaren aurrebista, Facebooken, Twitterren eta WordPress.com-eko irakurgailuan erakutsiko den bezala.

Kontrolatu orri tituluek Googleren bilaketa emaitzetan izango duten itxura.

Hasierako orriko metadatuak pertsonalizatu bilatzaileetan zure gunearen itxura aldatzeko.

Mondragon Unibertsitatea

Biblioteka

## Zalantzarik baduzu, galdetu zure bibliotekan:



**Basque Culinary Center**
**Biblioteka**
Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea**
**Biblioteka**
Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteka.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**
**Biblioteka**
Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteka.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa**
**Biblioteka**
Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteka.mgep@mondragon.edu

"Icon made by Baianat from www.flaticon.com"